


Agirregomezkorta
Maialen
Esku
artearen
baloia



drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 196. alea 2011ko abendua

Nire konpromisoa? Aseguru- aholkularitzarik onena eskaintzea.

Zurich **HelpPoint**[®]

Rafa Alberdi naiz, Zurich-eko aseguru-agentea, eta aholkularitza aditua emateko trebatuta nago. Hori egiteko konpromisoa hartzen dut. Emadazu nire hitza betetzeko aukera.

Aholkularitza
aditua dohainik.

Deitu telefono
honetara:

94.303.00.39

 **ZURICH**[®]

Because change happenz[®]

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIO**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Maialen Agirregomezkorta

LAGUNTZAILEAK:

Leire Elustondo, Maria González, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Valentín Mugarza eta Nora Mateos.

ARGAZKIAK:

Maialen Agirregomezkorta, Aitor Álvarez, Igone Amesti, Kattalin Ansorena, Fernando Aranberri, Ibaia Azagirre, Klemente Corredera, Degesa, Ermuko Herri Bilgunea, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ainhoa Lasuen, Valentín Mugarza eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Tamara Lorente, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.300 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

TXINBO ERREALA *Torcecuellos Jynx torquilla*



Zuhaitz enbor bati erpeetatik oratutako txori bat? Koloretsua bada, okila; lumatza marroxa badu, orbela eta enborrarekin bat eginda badago, txinbo erreala.

Txindurri, armiarmak... koko-jale honek usain zatarra du behin harrapatutakoan. Janaria lurtean topatzen duen

arren, entzutea errezagoa da ikustea baino. Hain ondo kamuflatuta, zerak...! Inon ikustekotan, Hanbren tantai handiren baten edo Mallabi aldean. Habia zuhaitzton enborretan egitea maite du eta sagar edo madari-arbola zaharren bat bada, gus-torago egongo da. Bere sama tente eta buztan luzexkari esker, lirain-liraina da bere itxura. 180° biratu dezake sama; hortik gaztelaniazko 'torcecuellos' izena.

Hilabete honetan...

MUSIKA TALDE-TXOKO4	BOTEPRONTOAN 16
Egara	Antonia Ormaetxea 'Txotxin'
ELKARRIZKETA5-7	KIROLZALE 17
Kattalin Ansorena, Mirri junior	Maialen Agirregomezkorta
MALLABIAN ZER?8-9	IRITZIA 18
Asun Mendibe	Zoriontasunaren argilunak
ELKARRIZKETA..... 10-11	SALEROSKETAK 19
Markos eta Juanmanolo	Saldu, erosi edo agurtu
MOTZEAN..... 12-13	ANTZINAKOAK.....20
Berbalaguneko 'menua'	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14-15	KALEKO INKESTA21
Iratxe Arizabalaga	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
	AGENDA22
	Urtarileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Egara

Alboka Musika Eskolan jaiotako talde honek errealitateari aurka egiteko erabiltzen du musika. Sarak, Larak, Inesak, Leirek eta Maialenek beste talde batzuen abestiak eta eurek sortutakoak jotzen dituzte.

1 **Sorrera.** Egara taldea orain dela lauzpabost urte sortu zen, Alboka Musika Eskolako beste hainbat talde bezala. Izan ere, Musika Eskolan ohikoa da klase partikularretan ikasitakoa, taldean zein bikotean praktikan jartzea.

2 **Izena.** Gure izena Eva Zubizarreta irakasleak asmatu zuen. Lehiaketa baterako izena behar genuen eta gure abizenen lehen letra hartu zuen izena osatzeko: Elustondo, Gómez, Arano, Rodríguez eta Alonso.

3 **Kideak.** Bost neska gara taldean: Lara, gitarra; Sara, bateria; Ines, baxua; Maialen, gitarra eta Leire, pianoa. Orain aldaketa izan dugu taldean Sara sei hilabetez Italiara ikastera joan delako eta Maialen Arrizabalagak ordezkatu du.



4 **Estiloa.** Pop-rock estiloa jotzen dugu.

5 **Abestiak.** Besteak beste Kaotiko, Descontrol, Dover, ACDC eta Lain taldeen kantak jotzen ditugu normalean. Hala ere, guk sortutako pare bat kantu ere baditugu: 'Berdintasuna denon ahotan' eta 'Bestea'. Errealitateari aurka egiteko bitartekotzat dugu musika eta honen bitartez berdintasuna aldarrikatzen dugu.

6 **Entseguak.** Hasieran Musika Eskolan entseatzen genuen baina egun, Betiondoko lokalatan entseatzen dugu bari-kuetan, PAM taldeak utzitako ekipoa-rekin. Haiengatik izango ez balitz, gure taldea ez litzateke existituko.

7 **Azken kontzertua?** Azken kontzertua Mallabiko Herriko tabernan eman genuen, Multa taldearekin batera. Hurrengo kontzertuaren data ez dago zehaztuta.

8 **Diskorik, maketarik...** Ez dugu diskorik ezta maketarik kalera-tu.

san antonio OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen



Kattalin Ansorena, Mirri junior:

“Txirri, Mirri eta Txiribitoni ukitu pertsonala eman ez heldu diegu”

Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorrek ‘Barre egin’ ikuskizuna ekarriko dute antzokira abenduaren 27an. 2012an 40 urte beteko dituzte Txirri, Mirri eta Txiribitonek, eta junior bertsioa herriz herri dabil dagoeneko barrea eragiten. Kattalin Ansorenarekin, hau da, Mirri juniorrekin, pailazoan ibilbideari eta erronka berriei errepasoa egin diegu.

- **Abenduaren 27an 'Barre egin' ikuskizuna aurkeztuko duzue Ermuko Antzokian. Zertan datza?**

Esketx multzo bat egiten dugu: istorio txikiak, bat egitunik. Txirri, Mirri eta Txiribiton betiko izaera islatzen da hauetan eta, beraz, bihurrikerietan oinarrituak dira, parte hartzea eragiten dute eta oso dibertigarriak dira. Familia ikuskizuna dela esango nuke, haurrek eta gurasoek ere, gozaten baitute. Guk ere ederki pasatzen dugu!

- **Noiz estreinatzen zenuten 'Barre egin'?**

2011ko martxoan ekin gion eta hogeitahogei hamar emanaldi inguru egin ditugu jadanik.

- **Ermura zatozten lehen aldia da?**

Ez, Ermuan hainbatetan izan gara. Oso gustura izan gara beti, publiko atsegina baita bertakoa, ikuskizunean bete-betean sartzen dena eta jatorra. Oroitzapen ederraz alde egin izan dugu orain arte Ermutik.

- **Datorren urtean 40 urte beteko dituzte Txirri, Mirri eta Txiribitonek. Zuen ibilbidean zer azpimarratuko zenukete?**

Txirri, Mirri eta Txiribitonek zabaldu duten poza da garrantzitsuena niretzat, eta poz hori euskaraz barreiatu izana. Hara zein aukeratu duten urteurren honetako goiburua: '40 urteko



algará'. Nire ustez ederki definitzen du egin duten lana, lan eskerga hain zuzen ere. Hasi ziren garaian horrelako zerbaiti ekiteko ikuspegi zorrotza eta adorea eduki izana zerbaiten erakuslea da eta, berrogei urte hauetan garatu duten lana eguneroko jardunean, herri bati maitasuna adieraztea da. Euskaldunoi barre egitearen balioaz ohartzeko hartu zuten erabaki irmoa eta, hasi ziren garaia kontuan hartuta batez ere, benetako jentilatasuna izan zela esango nuke. Eta horri eusteko izan duten kemena, benetako balentria. Benetan diot oso zoriontsu naizela honen parte izateko aukera eman didatelako.

- **Izan ere, pailazoei erreleboa heldu zaie 'junior' pertsonaiekin. Erreza izan da aldaketa egitea?**

Oraingoz ez dugu erabateko erreleboa hartu. Eurak ere lanean ari dira baina, noski, telebistan lana izan duten bitartean, ezin izan dute herriz herri ibili. Juniorrei dagokigunez, pertsonaiei heldu diegu geure ukitu pertsonala emanez, baina esentzia berbera da. Aldaketa ez da erreza izan inola ere: lan handia egin behar izan dugu eta, oraindik ere, haiek direna izateko badugu zeregina. Agian... 40 urte?

- **Lau hamarkadotako belaunaldiak pailazo horiekin hazi dira. Horrenbeste urtetan umorea egiteko era aldatu da?**

Era baino, erritmoa aldatu da, itxura agian, argiztapena, mikrofonoak... teknologiak aurrerapen asko ekarri ditu. Baina umorea, beti umore: oinarrian betikoa da,

baina azaltzeko moduetan izan du aldaketa. Bestetik, pailazo talde asko daude egun eta bakoitzak bere umorea egiteko bidea aukeratzen du. Txirri, Mirri eta Txiribiton beti saiatu dira umore zorrotz samarra egiten.

- **Zaila da umeei barrea eragitea?**

Gakoa haurrak tontotzat ez hartzea da. Haurrak ez dira inozoak eta ez zaie memeloei moduan hitz egin behar. Ahalik eta umore inteligenteena egiten saiatzen gara eta 'gag'ak etengabe sortzen. Umorea egiteko geure koktel berezia dugu eta gurasoek, aitona-amonek, anai-arreba gazteek eta haurrek barre egiten dute. Horrek benetan pozten gaitu.

- **Txirri, Mirri eta Txiribiton garai berrietara egokitu dira. 'Sagarra da Apple' saioa horren adierazle da?**

"Umorea egiteko koktel berezia dugu eta gurasoek ere barre egiten dute"

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Umeek ingelesarekin apur bat gertuago sentitzea da saio honen helburua. Ez hainbeste ikastea, baizik eta dibertitzea.

- **Aurtengo otsailean webgune berria estreinatuzenuten** (www.txirrimirrietatxiribiton.com). **Zer topatu dezakete umeek bertan?**

Webguneak hainbat atal ditu. Alde batetik albisteak daude eta bertan taldearen azken berriak irakur daitezke eta agendan, berriz, saio guztien ordutegiak. Bestetik, 'Sagarra da Apple' atalean saio guztiak ikusteko aukera dago. Juniorren atalean, osterara, gure aurkezpena eta egungo jiraren informazio guztia topatuko dute. Argazki mordoa dugu, jaso ditugun berrienetatik abia-

tuta, eta orain, Zumarragan eginiko azken saiokoak daude. Bertan, martxan dugun lehiaketaren lehen saria eman genuen eta gu ikustera etorri ziren haur xarmentak ikus daitezke. Azken atala jolasena da: puzzleak eta diferentziak aurkitzekoak daude.

- **Mila lagun baino gehiago duzue facebook-en. Pozgarria izango da, ezta?**

Dudarik gabe, eta pixkanaka-pixkanaka gehiago ere izango gara: ea laster 2.000 lagun bagaren, denak gonbidatuta zaudete! Egun hauetan lehen aipatu dudan lehiaketa egiten dihardugu facebooken eta parte-hartzea oso erraza da. Bidebat egin eta sari ederrak irabaz daitezke, tartean 3.000 euroko saria.

"Ez da erraza pailazotzari eustea, baina munduak behar gaitu!"

- **Ordenagailuaz gain, telebistan eta irradian ere zuek ikusi eta entzuteko aukera dago astebururo. Zuzeneko emanaldiak nahiago dituzue?**

Telebistan egiten ditugun saioak ere zuzenekoak dira, hau da, bertan dauden umeekin zuzeneko egiten da beti, eta ederra da.

- **Sari mordoa jaso duzue, tartean EITBren Iparragirre Sari Berezia (2005), Sabino Arana Sari (2007), Euskadiko Arte**

Eszenikoen Max Saria (2007), Telebistako Akademiaren Autonomi Haur Programa Onenaren Saria (2007) eta Merezimenduzko Argia Saria (2010). Zein izan da bereziarena?

Sariak eskertzekoak dira, gure taldeari maitasuna diotela erakusten digutelako komunikabide askok, eta jende eta talde ugari: eskerrik beroenak denoi! Baina, topikoa badirudi ere, benetako saria 40 urtetan izandako esperientziarena izan da Txirri, Mirri eta Txiribitonentzat.

- **Datorren urtean berrogeigarren urteurrena ospatzeko ekitaldirik egingo dute Txirri, Mirri eta Txiribitonek?**

Bai, noski! Emanaldi bereziak egingo dira Euskadiko Orkestrarekin batera eta gutxienez Gasteizen, Bilbon eta Donostian egongo gara. Hala ere, webgunean emango dugu horren berri. Euskal Telebistan ere, zerbait prestatzen ari gara.

- **Zein da zuen hurrengo erronka?**

Txirri Mirri eta Txiribiton pailazook bizirik jarraitzea. Egungo konturatzen gara ez dela erraza pailazotzari eustea, baina munduak behar gaituela. Ez dugu beraz beste erremediorik: *a faxti-diarse!*

Dorleta Vidal



ONTINDIA HARATEGIA

Etxean egindako
odoloste eta txorizoak



Kantabria zeharbidea 1
48260 - ERMUA

Tel. 943 10 85 44
Mug. 678 64 85 41

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36 / ermua@hotmail.es



· Er muko
Merkatarien
Elkarteko
kidea.
· 3 hilean
ordaindu
interes barik

Asun Mendibe, baserritarra:

“Ortutik jasotakue suplementue besterik ez da”

Etxekone baserrixen jai-xue, baserriko ortuen gaztetatik arittutekue. 14 urtera arte amari laguntzen eutsen Eibarko plazan. Azkenaldixen, inguruko azoketan bere generue saltzen ikusi dogu.

- Zer dala eta hasi zinen azoketan parte hartzen?

Gurasuek gure etxera bizitzen etorri zienien, inbernerue jartzie pentsau gendun, bestela hemen itto egitten zien, beti baserrixen bizi izeteran... Horrez gain, etxien generue beti euki dogu, gehitxua edo gitxitxua beti egon da. Igez, nahiko gauza neukela eta, Eibarko azokan parte hartzen animau nintzen.

- Horren ostien beste azoka batzuetan be egon zara, ezta?

Bai, guztire 4 azokatan egon naz: Eibarren parte hartu ostien, maiatzien Mallabixen eta azaruen Ermuen egon nintzen. Azkena, aurtengo San Andresak.

- Eta esperientzia zelan baloratzen dozu?

Edarto, oso gustora egon naz azoka danetan. Gainera, niretzako garrantzitsuena ez da saltzie bakarrik: jendia-kin egotie, harremantzie, azokako girue... hori be oso inportantie da.

- Zer eruten dozu azoketara?

Deuketena eskaintzen dot, danetik, sasoiien sasoiue:



porruiek, letxugak, azelgak, kalabaziñek, babie, sagar-rak, mizpilak... Azokara ahalik eta bariedade haundixena erueten saiatzen naz, bezeruei gauza ezberdiñek eskeiñi, gero eurek aukeratzeko lain euki daixen.

- Orokorrien, zelakue da azokako bezerue?

Danetik dau, baina eroslien gehiengue jende nausixe da. Jendiek apreziatzen dau azokako produktue, genero ona bada, gehixen bat.

- Eta plazara be jueten zara saltzen?

Ez, plazarako astirik eztauket. Baiña bezero fijuek dittut, deittu eta enkarguek eitten deustiez. Gero nik poltsie preparau eta etxera erueten deustiet.

- Biherrandixe da ortuen ibiltie?

Niri beti gustau izen jata, baina bai, bihera bada. Lehenago, ortuen aritziaz gain, aurreko egunetan dana pres-tatu, produktue garbittu, sailkatu... Generue garbi eta txukun egotie gustatzen jata, hori zaindu biher dan zeozer dala uste dot. Baina egindeko biherak merezi dau!

- Etxekuek laguntzen deustue?

Gurasuek eta ni ibiltten gara ortuen. Horrek dakarrena zera da, gu ortuen bagabiz, gizona eta seme-alabak etxien beste zeregin batzuetan ibiltten diela. Hori bai, zeozer egin biher danielien, iñork ez deuke problemarik esku bat botatzeko.

- Bizimodue baserritik ataraten dozu?

Nik neuk, afiziñoz egitten dot. Ortutik jasotakue guretzako suplementue besterik ez da, gu ez gara hortik bizi. Etxeko zeregiñekin danera ez naz heltzen. Plazara egunero jueteko ez dauket genero kantidaderik ezta denborarik be, baiña nire mar-txan oso gustora nabil.

- Ze azokatan ikusiko zaittugu berriro?

Abenduan 31an Elgoibarraren egingo dan azokara gonbidatu nabe, baina ondiok ez dakit juengo nazen, generuan arabera izengo da.

- Jarraitzeko asmuaz?

Ahal dan bittartien bai!

Igone Amesti
eta Ibaia Azagirre

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

ASTO PROBETAKO EMAITZAK

Pasa dan abenduko zubixen jokatu zan Mallabiko Pisu Neurtuko Asto Proben bosgarren sarixe. Bederatzi astok parte hartu eben eta honakuek izen zien emaitzak:

Izena:	Pisua:	Untzak:	Zm.:
1. Maumeko gazta	373	53	5,57
2. Mañukobenta	363	51	4,95
3. Alegria	342	49 eta 3/4	4,42
4. Maiora	326	49 eta 1/2	3,90
5. Legarreta	325	48 eta 3/4	5,85
6. Argoitia	332	47	0,70
7. Urkiaga	373	43	4,45
8. Zubibarri	389	40	---
* Satxibar	43	1/4	4,20

* Lehiaketatik kanpo

**ITSASO PRADERA
ETA AMAIA ARAIZTEGI IRABAZLE**

Abenduaren 16xen Bizkaiko Kluben arteko Txapelketa jokatu zan paleta goma modalidadien Sopelanan. Itsasok Tornosolo klubetik garaipena lortu eban lehenengo mailan Lea-Artibaiko taldian kontra. Bestetik, Amaiak Sopelana klubetik bigarren mailako txapela eskuratu eban. Honez gain, bi kirolarixek aurrez aurre aritu zien Euskadiko 'One Wall' sarixen. Banakako lehiaketa hau Lemoan ospatu zan abenduaren 3an. Lau partida jarraixen jokatu ondoren, Amaia gailendu jakon Itsasori finalien.

FRONTOIKO TARIFAK

Udalak jakitera emon dabenez, datorren urtetik aurrera Mallabiko kirol zerbitzuen prezixuek, hala nola gimnasioko, frontoiko eta bazkideen urteko kuotak igo egingo die. Horrez gain bazkideei sei-hileko kuotaren aukera eskaintzen jakue. Honen inguruko informazino gehixau nahi izeenez gero, hurreratu udaletxe edo kiroldegira.

GABONETAKO EGITARAUE**ABENDUAREN 24AN (LARUNBATA)**

- Olentzero Mallabira dator!
Plazan, 19:00etan.
Orraittio eta Izar Gorrik antolatute.

ABENDUAREN 27, 28 eta 29AN

- Zinea
Kultur Etxien, 18:30ean.
Futbito taldeiek antolatute.

ABENDUAREN 30EAN (OSTIRALA)

- Haur parkea
Frontoien, 11:30-13:30 eta 16:30-19:30.
Mallabiko Udalak antolatute.

ABENDUAREN 31N (LARUNBATA)

- Antzararen jokoa
Eskolako frontoien, 12:00etan.
Futbito taldeiek eskutik.
- Trikipoteoa
19:30ean.
Orraittiok antolatute.

**FRONTENIS TXAPELKETAN IZENA
EMOTEKO EPIE ZABALIK**

Mallabiko Frontenis Txapelketa izena emoteko epie urtarilaren 15era arte egongo da zabalik. Banakako txapelketa izengo da, eta aurren liga sistema bidez jokatu die partiduek, gaitasunen arabera, 8-10 laguneko taldeiek eginez. Jokalari bakotzak zortzi partidu inguru jokatu dittu otsailien hasi eta maiatzien amaiztuko dan txapelketa honetan. Izena emon gure dabena telefono honetan egin leike: 669028718.

MUGA



KIROLAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MALLABIKO
Herriko
taberna**



Eguneko platera (3€)
menua, bokatak,
plater konbinatuak,
pintxoak, kazolak,
arraina eta txuleta
parrillan (enkarguz)...

943 174 952
(asteartetan itxita)

**IZOTZ
IZOZTUAK**



ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA



- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

Markos eta Juanmanolo, 'Hipo y Condrias' en egileak:

“Ez antzerkia, ez monologoa, guk ‘txou’ a egiten dugu”

‘Hipo y Condrias, bi-ologo’ lana antzeztu dute azaroan bigarrenez Markos Gimeno eta Juanma Rodriguezek Ermuan. Bi medikuren arteko solasaldi ero honen sortzaileak hitz jokoetan oinarritzen dira barrea eragiteko eta dagoeneko beste proiektu batzuei heltzeko prest daude.

- Aktoreak zarete?

Juanmanolo: Bai. 16 urtekin hasi nintzen antzerkia egiten. Ermuko tailerrean hasi nintzen eta horren ostean Getxon eta Madrilan egon naiz. Oso gustura egon nintzen hasieran, eta lantxo batzuk egiteko aukera izan nuen; gero, berriz, ez nintzen hain gustura egon! Orain benetan gustatzen zaidana egiten ari naiz: hitzekin jolasten. Showmanarena egiten.

Markos: Ni orain dela 6 urte hasi nintzen Ermuko tailerrean eta lan batzuk antzeztu izan ditut eurekin. Laga nuenean, Juanma agertu zen.

- Eta zerk batu zintuzten?

M.: Infreñu tabernan herriko artistekin saioak egiten hasi dira eta Juanmari zerbait egiteko enkargua egin zioten eta nirekin jarri zen harremanetan. ‘Hipo y Condrias’ sortu genuen eta harrera ona izan zuenez, beste


antzezlekuen bila hasi ginen. Dagoeneko Ermuan bi emanaldi egin ditugu (Infreñu eta Lobianon), Beasainen egon gara eta baita Gas teizen ere.

- Zer da ‘Hipo y Condrias’?

M.: Hipokondria eta gai medikoak aitzaki hartuta sortutako ikuskizuna da. Bi pertsonaia gara, irrati saioa egiten, eta esketx bakoitza hurrengoarekin lotzen joaten gara etengabe.

- Zergatik aukeratu zenuen gai hori?

J.: Ni hipokondriakoa naiz. Lan hau egin eta gero, ez horrenbeste, baina horrekin jolasteko gogoia nuen. Diagnostikoak egitea gure baitan dago, gizartearen, eta sinismenetan, politikan eta abarretan oinarrituta daude. Irakatsi diguten zerbait da. Bada, gaixotasunekin gauza bera gertatzen da. Hipokondria ere ikasi dugun zerbait da: “Hau badaukat gaixorik egongo naiz, ez naiz



ondo izango; beste hau ez badaukat ez naiz gustura sentituko...”.

- Antzerkia, monologoa... nola sailkatuko zenukete lan hau?

‘Txou’ a da.

- Esketxak aurrera eramateko hitz-jokoetan oinarritzen zaretela esan duzue, ezta?

J.: Bai. Txikitatik bioi gustatu izan zaigun zerbait delako. Abizenekin jolastu, hitz baten azken letra hurrengo hitzarekin lotzea... Tip y Coll-ek ere antzerako zerbait egiten zuten. Ez dira gure garaikoak, baina...

- Eta gaur egun egiten den umoreari buruz zer diotuzue?

mari asun 
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379


**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

J.: Gaur egun ez da ia umorerik egiten, monologoak bakarrik, baina guk ez dugu hori egiten. Guk biologoa egiten dugu eta, nola ez, umore proparoxitonoa. Eta hau zer da? Ez dakigu, baina egunen batean jakin-gog dugu.

- Bi medikuren arteko elkarrietzeta da, orduan?

J.: Gure asmoa medikua eta pazientearena egitea zen, baina oso nekagarria zen.

- Denborak aurrera egin ahala lana moldatzen joaten zarete?

M.: Bai, atal batean analisi politikoa egiten dugu, esaterako, eta horrek gaurkotasuna eskatzen du: maiztzeke hauteskunderi buruz hitz egiten genuen hasieran,

gero azarokoei buruz... Zahartuta geratzen direnean, txiste batzuk kendu eta beste batzuk asmatzen ditugu.

- Zenbateko iraupena du lanak?

J.: Ordubetekoa. Gutxiago bai, baina gehiago irautea ezinezkoa litzateke.

- Eta ikusleek zer espero behar dute?

J.: Ezer ez. Hobe ezer ez itxarotea. Ondo pasatzeko gogoia eta buruarekin ariketa egiteko gogoarekin etorri behar dira, erritmo bizian burutzen baitugu lana, batez ere hasieran. Gero lasaitzen joaten gara, baina erritmoa lasaitzen doan heinean espektakulua handituz doa. Oso kuriosoa da!

M.: Ezin da azaldu zer den. Ikusi egin behar da.

“Buruarekin ariketa egiteko gogoarekin etorri behar dira ikusleak”

- Adin guztietako jendeak ikus dezake?

15 urtetik gora hobe. Umeak gu ikustera etorri izan dira eta ez dute ulertu.

- Zer nolako harrera izan duzue orain arte?

M.: Oso ona egia esan.

J.: Guk eta jendeak ere sentsazio politak izan ditugu.

- Publikoarekin hartu-emanik duzue?

M.: Ez, ez dugu inor ateratzen ezta ziprztintzen ere. Baina eurak hor egotea eta barre egitea ezinbestekoa da.

- Zer da jendeari barre gehien eragiten diona?

J.: Zerbaitek harrিতuta lagatzen dituenen. Zerbaitek espero eta beste gauza bat esaten dugunean edo agerikoa den zerbaitek beste era batera azaltzen dugunean.

- Aurrera begira beste proiekturik baduzue?

M.: Bai, baditugu ideia batzuk buruan. Oso gustura ibiltzen gara elkarrekin lanean eta beste proiektu batzuk egiteko gogoia dugu.

J.: Hala ere, orain ‘Hipo y Condrias’ zabaltzea nahi dugu: dibertigarria da eta oso ondo pasatu dugu idazten eta baita antzeztzen ere.

- Nonbaiten ikus daitezuen ‘txouaren’ zatitxo bat?

Blog bat daukagu: www.hipoycondrias.wordpress.com eta facebooken ere bagaude, baina oraindik gure aurkezpena baino ezin da ikusi. Ez dugu momentuz bideorik igo.

- Enkarguz lan egingo zenukete?

M.: Bai, Gure Balioak sariaren banaketan parte hartu genuen (duela hilabete inguru). Debegeesak antolatutako ekitaldia zen eta oso gustura geratu ziren, nahiz eta aurretik ez zekiten zer egin behar genuen. Oso ausartak izan ziren! Neurriera egindako ikuskizunak egin ditzakegu, beraz. Kongresu edo ekitaldiei seriotasuna kentzeko kapazak gara!

Dorleta Vidal



O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak, lentzeria, aulkiak, sehaskak, tronak... behar duten guztia!

Eta gainera 'Hello Kitty'-ren artikulu mordoa!

Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Asteleheneretik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

**BERBALAGUNEN
'MENU' OSATZEKO
EPEA ZABALIK**

Berbalagun egitasmoak 2012an zehar burutuko dituen ekintzak aukeratzeko prozesua martxan ipini du. Prozesu honetan interesa duten herritar guztiek parte har dezakete eta hauek gustuko dituzten ikastaroak, hitzaldiak, kirolak eta txangoak proposatu beharko dituzte. **P r o p o s a m e n a k** ermua_berba@aek.org helbidera bidali edo Kaltxango, Udal Euskaltegia, Elexoste edo Euskara Sailera eraman beharko dituzte urtarrilaren 6a baino lehen.

**18 LAGUN BILDU
ZIREN ERMUAN ETA
MALLABIAN ERREKA
GARBITZEKO**

Debegesak eta Uraren Euskal Agentziak elkarlanean antolatuta, Deba eta Ego Ibaien garbiketa saioak burutu ziren azaroaren bukaeran. Ermuan 15 boluntario elkartu ziren eta denen artean Beranoko ubidea garbitu zuten, Errekalden. Mallabian ez zen talderik sortu baino bertako 3 herritar Ermukoekin lanean aritu zirela jakinarazi dute bertako arduradunek. Hiru orduz jardun zuten ibaian aurkitutako hondakinak jasotzen eta, hori dela eta, Debegesak eskerrak eman nahi dizkie guztiei.

Abenduaren 26ra arte erakusleihen lehiaketarako bozketa epea zabalik

Gabonetako Erakusleihen II. edizioa antolatu da aurten Ermuan eta 25 denek izena eman dute: Sukei, Enter informatika, Ramos moda, 7 Colores, Senén bitxi-denda, Dskaro, Vintage, Solozabal estankoa, Artarrai, Etxedreams koltxoi-denda, Cocoliso, Elenco 2, Sare informatika, Virginia Pascual, Truccos ile-apaindegia, Nina, Anboto burdindegia, Sagardui poltsak, Lotalo, El Baul, Egaña, Mariasun lore-denda, Marfil ile-apaindegia, Ainner ile-apaindegia eta Orbe toloak. Izena emateko epea abenduaren 12an itxi zen eta herritarrek abenduaren 26ko gauerdia arte botoa emateko aukera izango dute (Ermuko Udaleko webgunean). Gainera, bozketan parte hartzen duten guztien artean denek emandako produktuekin osatutako sorta zozketatuko da. Lehiaketa honen helburua *"merkatariak euren erakusleihok apaindu eta jantzi ditzatela da. Gabon giro handiago eta koloretsuagoa izan dezagun gure herrian"*, azpimarratu du Udalak. Parte hartzen duten denek, gutxienez, 22.00ak arte izan beharko dituzte erakusleihok argizatuta abenduaren 6a bitartean.

Urtarrilaren 7ko manifestaziorako autobusak ipiniko dira Ermutik

Ermuko Herri Bilguneak jakinarazi duenez, urtarrilaren 7an Bilbon burutuko den herri mobilizazioan parte hartzeko autobusak ipiniko dira. Interesa dutenek Infreñu edo Txalaparta tabernetan eman beharko dute izena. Manifestazioa



17:30ean hasiko da, 'Kaleak bete, kartzelak hustutzeko' lelopean. Era berean, abenduaren 30ean (azken ostirala) eta urtarrilaren 1eko goizaldeko 1:00etan burutuko den brindisean parte hartzeko gonbitea egin du Bilguneak.

XVIII. Juanita Ibaibarriaga Literatur eta Erreportaje Lehiaketaren sariak banatu dira

Igor Piñeiro, Aitor León, Gaizka Cuadrado, Aicha Martínez, Iraia Bengoetxea, Maddi Gorrotxategi eta Ruth Lorente izan dira Juanita Ibaibarriaga Literatur lehiaketaren aurtengo irabazleak, umeentzako kategorian, eta bakoitzak 40 euroko erosketa txekoa jaso du. Erreportajeen kategorian, berriz, Imanol Bustinduyk lortu du 400 euroko saria 'Gizon on bat' lana idazteagatik. Sari banaketa Udal Liburutegian burutu zen abenduaren 1ean. Orain arte Euskal Birusak antolatzen zuen ekimen hau Ermuko Udaleko Euskara Saialak kudeatu du aurten estreinakoz eta arduradunen arabera *"ikasleen parte hartzea oso handia izan da"*.



Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

T XALAPARTA
ABERNA

**Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

'Amaren alabak' Ermuko kaleetan kantari



Kasualitateak batu zituen 'Ermuan Kantuan' eta 'Amaren alabak' taldeko abeslari ziberutarrak. Bezperan 'Hostoak' ikuskizunean beraien ahotsekin liluratutako askok, eguerdian haiekin batera kantatzeko aukera izan zuten, kafe bat hartzen zeundela, ermuarren abestiek deituta hurbildu ostean. "Plazer bat!", "Zoragarria!", "Ze gustura!"... alde biezat izan zen gozagarri Zubiaren gora eta behera elkarrekin egindako kantaldia. Kantu-liburuko klasiko batzuk, bezperako

ikuskizuneko beste batzuk beraien opari... Azkenean 'Patxi Urko'ren koplak grabatuta eraman zituzten, doinu herrikoiak "biziki maite" dituztela-eta. Kantu-liburutxo ale bana baita, ustekabeko kantu-poteotxo hura oroitzeko asmoz. Handik bi astera Arrasaten, euren kantaldi baten amaieran, Ermuko abeslariarentzat goraintziak eman zizkietala diote Ermuan Kantuaneko kide batzuk, "Izan untsa!", ondo izatea opatuz.

Trake eta Egara taldeek irabazi dute 'Beldur Barik' lehiaketaren herriko saria

Trake antzerki taldeak egindako bideoak ('Un bolero para ti') eta Egara musika taldeak sortutako abestiak ('Berdintasuna denon artean') 'Beldur barik' lehiaketaren herri saria partitu dute eta bakoitzak 250 euro jaso ditu, diploma eta Tribial Feminista bana. Bideoan 16 eta 20 urte bitarteko 12 gaztek parte hartu dute eta abestian, 17 eta 20 urte bitarteko 5 neskek. Emakumeenganako biolentziaren kontrako adierazpenak jasotzen zituzten beste lan batzuk ere aurkeztu dira lehiaketara, tartean 3 kartel, egutegi bat eta rap bat, eta horiek guztiak Lobianon ospatutako jaietan ikusteko aukera egon zen.

Denbora Bankuak 5 urte bete ditu

Auzopolisek kudeatzen duen Ermuko Denbora Bankuak 5. urteurrena ospatu du abenduan eta elkarrekin ospatzeko, hogeita hamar lagun bildu ziren hilaren 13an Txalaparta Elkartearen, Andoni Docek gidatutako sukaldaritza ikastaroan parte hartzeko eta dastatzeko (era askotako kanapeak, txahal-masailak saltsan eta pispiluak). Egitasmoa 2006an jaio zen eta euren bazkideek izan ditzaketen beharrei erantzutea du helburu, denbora elkar trukatzu. Ideia horrek Udalak antolatzen duen Juan Torres saria jaso zuen (9.000 euro) eta hasieran 18 lagunek osatu zuten elkarte. Gaur egun, berriz, 75 bazkide baino gehiago ditu, tartean durangarrak, zaldibartarrak, elgoibartarrak eta bergararrak.

OLENTZERO 24AN ETA 31N EGONGO DA ERMUAN

Urtero lez, Olentzero txikia izango da abenduaren 24an herriko kaleetan barrena 11.00etatik aurrera, Anaitasuna Ikastolak antolatuta. 31n, berriz, Olentzerorekin kalejira burutuko da Txindurri taldearen eskutik (18.00etan hasita Orbe Kardinalaren plazan). Honez gain, Olentzerori gutunak bidaltzeko 5. lehiaketa jarri du martxan Udaleko Euskara Sailak. Parte hartu nahi duten ume eta helduek Liburutegira eraman behar dute gutuna hilaren 29a baino lehen. Gutun guztien artean zozketa egingo da eta jolasak edo afari bat irabazteko aukera egongo da, adinaren arabera.

ELKARTASUNEKO TONBOLA ZABALIK DAGO

2.000 opari baino gehiago banatuko ditu aurten Torrekua kalean dagoen Elkartasuneko tonbolak (Horacio arropa-denda ohian). Txartelak euro baten truke salduko dira eta lortutako dirua elkartasuneko proiektuetara bideratuko da.

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

MAIOLA
ileapaindegia
Probaleku 8, behea © 943 17 18 50



Pub SCORPIO
Zubiaurre, 21
ERMUA

ARRAL 97
D. ARRAL 97 S.L.
Tfno. 943 176 075 - Fax: 943 170 892
arral@arral97.com
www.arral97.com

Ardo banatzailea:
Luis Cañas
Cantosán Verdejo
Viña 65 Verdejo
Amaren
Añada Real
Cava Oriol Rosell
Nitida
Montepinos

Euskarazko hedabideek erakundeek konpromisoa behar dute

Bederatzi hilabete badiara euskarazko hedabide ez publikoak agerraldi publikoa eta kanpaina bateratua egin genituela, hiru helburu nagusirekin

1. Sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea. Komunikazioaren eta hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik ez ezik, ekonomia ikuspegitik ere estrategikoa eta garrantzia handikoa den sektore bati buruz ari gara hitz egiten.

2. Erakunde publikoek sektorearekiko konpromiso handiagoa eskatzen zitzaien, publizitate-inbertsio, bestelako inbertsio eta laguntza handiagoak, gaurtik bertatik hasita.

3. Horretaz gain, sektoreak egoeraren analisia egin eta analisi horretatik abiatuta ildo nagusiak erakundeekin lantzen hasteko konpromisoa hartu zuen.



2012. urtea ate-joka dugu, eta erakundeetatik sektoreari begira jasotzen ari garen mezuak kezkarriak dira, ikaratzeko modukoak.

1. 2012rako aurrekontu proposamenen jasota daudenak betetzen badira, Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideentzako zituena diru laguntzak ezerezan dira, 2012ko aurrekontuetatik erabat desagertuko da hedabideetan euskara sustatzeko diru partida. Gainera, 2011ko bigarren epealdiko laguntzak desagertzeko arriskua ere handia da.

2. Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak onartzen badira, erakunde horrek aurrean baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu 2012an hedabideen diru laguntzetara. Urteetan, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren estatusunak sortu direnean, ez dago gupidarik: lehendik estu dabilen sektore bati are kalte handiagoa egiteko aukera zabalduko da.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusi du —aurreko bi urteetan asko jaitsi da diru sail hori, eta ez du handituko—. Bizkaiko Foru Aldundia da 2012rako bere aurre-



kontuetan diru saila handitzea aurreikusi duen bakarra —47.500 euro gehiago, %12ko igoera—.

4. Eta zer esanik ez Iparralderi buruz, non euskaldun hartzunen galera bizkorra (hizkuntza politika publiko baztertzailaren ondorioz) anbizioz gabeko hizkuntza politika batekin paraleloan doan. Enpresa pribatuek euskarazko hedabide berriak sortzen dituzten bitartean, laguntza publikoak oraindik geldialdi berean mantentzen dira eta, aldi berean, botere publiko gehienek ez dituzte kontuan hartzen euskarazko hedabideak beren publizitate kanpaina ordainduetan.

Jakitun gara sektorearen etorkizuna gure lanaren baitan dagoela nagusiki. Guk geuk ere aztertu behar ditugula gure indargune eta ahuldadeak, sektorean elkarrekin jardunda errazagoa izango zaigula garai zail honi aurre egitea. Zeregin ho-



rretan ari gara hilabete hauetan eta laster batean gure hausnarketa instituzioetako arduradunekin partekatua ahal izango dugu. Baina argi dugu aurrera egiteko ezinbestekoa dugula erakunde publikoen laguntza handiagoa, eta hori ari gara aldarrikatzen une honetan.

Gaur egungo erakunde publikoen dinamikak ez du asko laguntzen bide horretan, eta ezin dugu isilik geratu ikusten dugunean euskarazko hedabideen sektoreak ez duela erakunde publikoen 2012ko aurrekontu proposamenetan behar eta merezi duen trataera jasoko, ustez denen begietara sektore ezinbesteko eta estrategikoa izan arren. Horregatik, erakundeek publikoki eskatzen diegu gaiaren garrantzia kontuan hartzeko eta aurrekontuak ahalik eta gehien egokitzeko, partidak handituz.

Euskarazko hedabide ez publikoak

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

DO
Mouth

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak

UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

Zure publizitatea...

drogetenitturri
aldizkarian

943 179350
688 632876
Erdikokale 2, 1
drogeten@gmail.com

Iratxe Arrizabalaga, Gorabideko boluntarioa:

“Arazoak erlatibizatzen ikasi dut”

Iratxe Arrizabalagak 23 urte ditu eta Gasteizen bizi da. Goizetan Topografia ikasten du eta arratsaldetan Gizarte-Integrazioa. Asteburuetan berriz, Ermura bueltan, Gorabide elkarteari denbora eskaintzeko tartetxoak topatzen du eta elkarteak boluntarioak behar dituela jakinarazi nahi du.

- Zer dela eta hasi zinen ‘Adimen ezintasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkartearekin’, hau da, Gorabiderek, kolaboratzen?

Duela 5 urte hasi nintzen, begirale titulua ateratzeko praktikak egin behar nituelako. Antxixiketan aisialdi taldearekin ere praktikak egin nituen eta beste esparru bat landu nahi nuen. Gorabiden boluntarioak behar zirela esan zidaten taldeko mutil baten gurasoek eta bertara jo nuen.

- Zelakoa izan zen lehen esperientzia?

15 eguneko irteera egin nuen eurekin abuztuan, Carrión de los Condesera (Palentziara). Ezintasunari buruz ez nekien ezer eta hamabostaldia bukatutakoan mundu horrek erakartzen ninduela ikusi nuen eta Gizarte-Integrazioa ikastea erabaki nuen.

- Urtean zehar ere biltzen zarete?

Bai, astero bi saio egiten dira: asteazkenean eta larunbatean. Ni larunbatetan egoten naiz eurekin eta lagun gisa egoten naiz, koadri-larekin geratuko banintz bezala. Lau orduz egoten gara elkarrekin: futbol edo esku-baloia partiduak ikusi, kafea hartu... Herriko ekitaldietan parte hartzen saiatzen gara, ahal den neurrian.

- Eta asteazkenetan zer egiten dute?

Asteazkenetan bi orduz biltzen dira eta eurek aukeratzeko dituzten jarduerak burutzen dituzte, euren denbora libreka baita. Ongarain dugu lokalean informatikarako gelatxoak dugu eta baita sukaldia ere, beraz, aukera handia dugu.

- Erraza da boluntarioak topatzea?

Ez, ez da batere erraza. Aurten arazo mordoia izan dugu asteazkeneko saioetarako boluntarioak topatzeko eta azkenean, Eibarko eta



Durangoko lagun banak hartu behar izan dute horren ardurara.

- Zein da begiraleen profila?

Orokorrean gazteak izaten gara, beharbada lan honek kredituak lortzeko eta begirale titulua ateratzeko balio duelako. Denbora Bankuko lagunak ere izan dira gurekin.

- Zer konpromiso eskatzen du begirale izateak?

Eurekin egoten garenean horretan, eta ez beste ezertan, pentsatzen egotea eskatzen digute eta, ahal den

neurrian, jarraipena ematea. Pazientzia ere izan behar dugu batzuetan.

- Zer erakutsi dizu lan honek?

Gauza mordoia. Ermuko Gorabide osatzen duten 16 lagunek bere ahuleziak dituzte baina pertsonak dira, eta, askotan, harritura lagatzen zaituzte. Zure eguneroko arazoak alde batera lagatzen erakusten dizu lan honek, mundua beste ikuspuntu batetik begiratzeko aukera, arazoak erlatibizatzen... asko ikasi daiteke. Merezki du.

Dorleta Vidal



NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA

“Adituak gara ondo elikatzen irakasten”

AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu

Komentukua 1, behea
943 17 63 72

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com



ANTONIA ORMAETXEA 'TXOTXIN'

- **Zenbat neba arreba izan zineten?**

Bi mutil eta bi neska. Ni hirugarrena. Zoritxarrez neu naiz bizirik dagoen bakarra.

- **Nolako gaztaroa izan zen nuen?**

Gu baserrian bizi ginen, gaur egungo Probaleku kalean zegoen. Guraso oso onak izan nituen eta pozez beteriko gaztaroa daukat gogoan. Mallabiko erromeriak adibidez, oso dantza zalea nintzen-eta.

- **'Txotxin' ezizena nondik datorkizu?**

Nire aitari jarritako ezizena zen hori. Txori baten izena zela esaten zioten. Haren ondorengokoez ere, ezizena mantendu dugu.

- **Eskolara joateko aukerarik izan zenuen?**

Ermuan eta Sallabenteko eskoletan ibili nintzen, baina ni ez nintzen eskola zalea. 14 urterekin lanean hasi nintzen torlojuak egiten eta Forjan eman nituen urteak. 20 urterekin ezkondu nintzen eta lana utzi nuen.

- **Lana utzi izanaren damurik baduzu?**

Egia esan, bai. Batik bat zahartzarorako izan beharko nituzkeen ordainsariak eta abarrak ondo lotu gabe utzi nituelako.

- **Nola ezagutu zenuen zure senarra?**

Inauteriak ziren Ermuan. Berak 10 urte kartzelan emanak zituen eta handik atera ostean izan zen. "Ni hotzak nintzen eta zu agertu zinen", esaten zidan hura gogoratzean.



Ermuan jaio zen duela 84 urte. Bi alabaren ama eta duela gutxi laugarren aldiz birramona egina. 'Txotxin' ezizena bere aitarengandik jaso zuen. Santa Ana auzoan bizi da aspalditik. Udara sasoiari Lekeitiora joatea du gustuko. Emakume ona, alai eta hiztun fina.

- **Gero bi alaba izan zenituen eta alargundu ere bai. Nola bizi izan zenuen hori?**

Zorte handia izan dut nik. Gizona ona eta alabak ere oso onak izan ditut. 63 urterekin alargundu nintzen baina aurrera egin nuen. Sendi osoa beti izan dut alboan eta ni ere saiatu naiz sendia elkartuta mantentzen.

- **Gabonak badatoz...**

Ez didate aparterko zirrararik sortzen. Iristean poza sentitzen dut baina poz gehiago izaten dut amaitzen direnean.

- **Lekeitio...**

Udara guztietan han pasatzen ditut egun batzuk alargundu nintzenetik. Asko maitte dut Lekeitio. Itsasoa, olatuak... asko lasaitzen naute.

- **Eguneko zure momentua...**

Bazkalostean, lo kuluxka txiki bat egin, La Cabaña tabernara joan, karta jokoan ari diren lagunei begiratu eta kafetxo bat hartzen dudana momentua.

- **Krisia entzuten da...**

Niretzat ez dira gauzak asko aldatu. Ni beti bizi izan naiz krisian. Pezeta zaintzen beti. Halere, jakin dut au-

rrera jarraitzen eta bizitzari zukua ateratzen.

- **Bizitzako zure lema...**

Lana egin eta bizi egin behar dela.

- **Zerk kezkatzen zaitu?**

Sendiak, alabek, ilobek... eta hortik kanpo, gaurko gazteen etorkizun beltzak.

- **Zure bertute bat...**

Inori ez diodala sekula minik egin. Behintzat horretan saiatu naiz.

- **Osasunak laguntzen dizu...**

Polito nabil nahiz eta nik ere izan ditudan nire arazo txoak. Medikarengana joan eta bera ikuste hutsak sendatzen nau.

- **Fedea...**

Ni oso fededuna izan naiz beti eta orain ere hala naiz. Fedeak asko lagundu dit bizitzan.

- **Heriotza...**

Ez nau beldurtzen. Azken momentuan sufritzeak, horrek kezkatzen nau. Sendiari esana diot, azken agurra elizan egiteko eta ondoren errautsak nahi dituzten tokian zabaltzeko.

- **Bete gabeko ametsik...**

Bilbotik Galiziaraino ibilbide turistikoa egiten duen trenean bidaiatzea egitea.

- **Norekin afalduko zenuke?**

'Goenkale' telesailaren zale amorratua naiz eta Maria Luisarekin joango nintzateke.

- **Laguntasuna...**

Lagun asko ditut eta beti saiatzen naiz jendearekin hitz egiten. Jendea asko maitte dut eta ni ere oso maitatua sentitzen naiz.

Asier Ibaibarriaga

komunitateak
aseguratuak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

Maialen Agirregomezkorta, eskubaloijokalaria:

“Taldekideen esperientziak lasaitasuna ematen dit”

Bizitza erdia eskubaloari eskaini dio Maialen Agirregomezkortak dagoeneko, 9 urterekin hasi baitzen Anaitasuna Ikastolan jokatzen eta egun 18 urte ditu. Irailetik aurrera Erizaintza ikasteari ekiteaz gain, Etxebarriko Kukullaga Eskubaloijokalaritza Taldeko ohorezko mailan bere ibilbidea jorratzen hasi da.

- Nola heldu zara Etxebarriko eskubaloijokalaria?

Errotabarrin ez dago senior talderik eta eskubaloian denok elkar ezagutzen dugunez, bertako entrenatzaileak deitu zidan.

- Zenbat denboraldirako kontratua duzu?

Momentuz, denboraldi honetarako deitu didate. Hortik aurrera... ikusiko da! Erizaintzako nire lehen urtea da eta ez genekien kontua nola joango zen.

- Lau hilabete daramatzazu Kukullagan jokatzen. Moldatu zara jadanik jokalaria eta entrenatzaile berriekin?

Egia esan, hasieran oso arraroa egin zitzaidan. Eskubaloian jokatzen hasi nintzenetik taldekide berberak izan ditut, eurekin joan bainaz mailaz maila igotzen, eta nire adinekoen kontra jokatu izan dut beti. Bat-batean 30 urteko jendea topatu dut nire inguruan, kanpotarrak, sekulako esperientzia duten jo-

kalariak... Entrenatzaileak ere sekulako esperientzia du, joko olinpikoetan egondakoa baita. Denborarekin, euren esperientziak lasaitasuna eman dit eta orain oso gustura nago.

- Iraila gogorra izan zenuen, beraz?

Egia esan, denboraldiaurrea abuztuan izan zen eta bai, arraro samarra izan zen. Ez nekien zer espero zuten nitaz, ezta nik zer espero nezakeen eurez.

- Maila fisikoan ere aldaketa igartzen da?

Bai, entrenamenduetan indarra asko lantzen da. Gimnasioan jo eta ke nabil orain!

- Asko entrenatzen duzue?

Astelehenetik ostiralera bi ordu t'erdia egunero eta larunbatetan partiduak izaten ditugu.

- Denbora asko kentzen dizu?

Bai, horregatik oso garrantzitsua da denbora antolatzen jakitea. Gauza guztientzako tartetxoa atera dezakezu zure bizitza ondo antolatzen baduzu, lagunekin egoteko, esaterako.

- Etorkizunean eskubaloia ogibide bihurtu nahiko zenuke?

Dena ondo badoa jarraitzeko asmoa dut eskubaloiarekin eta baita ikasketekin ere, noski. Profesionalki aritzea gustatuko litzaidake, baina ikusiko da!



- Zer nolako egoeran dago nesken eskubaloia?

Eskubaloia berez nahiko diskriminatuta dago, eta are gehiago nesken eskubaloia: Albiste izateko txapelketaren bat irabazi behar dugu. Neskek lanean dihardugu eta ez da gutaz hitz egiten.

- Zergatik izan du Ermuan horrenbeste arrakasta eskubaloiak?

Ez dakit, Ermua taldea oso ona zen eta lagun asko joaten zen eurak jokatzen ikustera. Zaletasun hori ikusteak harrapatu egiten zaitu eta umeek erreferentzia bezala hartzen dute. Gainera Matxalen bezalako kirolariak, profesional bezala aritzen direnak, erreferente dira.

- Nola baloratzen duzu Errotabarri Eskubaloijokalaritza Taldearen ibilbidea?

Gauza asko lortu dira, entrenatzaileak oso gustura daude eta lan egokia egiten ari da. Gainera harrobi ona



dago: taldeak zeresan handia emango duela uste dut.

- Datorren urtean senior taldea osatzeko asmoa dago. Errotabarrira bueltatuko zinateke?

Entrenatzaileak gauza bera galdetu dit. Beste maila batean nago orain, beste intentsitate batean egiten dugu lana eta oso esperientzia polita bizitzen ari naiz. Euskal Herritik kanpo jokatzen dut orain, Kanariar irletan jokatu genuen duela gutxi, Elx-en, Saguntan, Leonen... Leku batetik bestera nabil!

Dorleta Vidal



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

solozabal
tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



DULCE BEBÉ PEQUE'S

0 eta 4 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

Zoriontasunaren argilunak

Kale-dekoraziorako argiek erosketak suspertu ei dituzte. Urte osoko beste edozein egunetan gastatzen ez dugun dirua xahutzeko tentazioa ei daukagu. Horrelarik ez dagoenean, egon dela ere sinistu izaten dugu. Horregatik, estatistikek gastatuko omen dugun diru kopurua iragartzen digute eta gure elkarrizketetako hizpide bihurtu ere.

Datuen arabera, egunean munduko herritarrok oilasko erdi bana jaten ei dugu. Estatistiken okerra, beraz, begi-bistakoa da: zenbait ezer jaten ez badu, beste batzuek okelarik jaten ez badabe, gainerakoek oilasko osoa baino gehiago jan egiten dute!

Hortaz, abenduko oporretan herritar bakoitzak 600na euro gastatuko duela iragarrita, zoriontasun ofiziala heldu dela ematen du. Abenduaren 24an eta urtarriaren 1ean, txirotasun mailarekin pareka daitekeen langabezia tasa ikaragarri alturik ez dagoela amestu eragingo digute.

Hori bai, Urte Berri egunarekin batera, zoriontasunak alde egingo du. Gaztain erreen usainari kantatzen zion telebistak diru gehiegi xahutu dugula aurpegiatuko digu. Azken batean, gure aukeren gaineratik bizi izanaren susmoa zabalduko du batez besteko soldatarik kobratzen ez duen Sailburuak, gizarte laguntzako neurriei murrizketa handiak egin eta gero. Izan ere, inork ez du txiroa izatearekin amets egiten. Bilboko Kale Nagusiko dendetatik Donostiako



*Maria González
Gorosarri*

hondartzara osteratxo bat ematera zitzu bizian eramango gaituen Abiadura Handiko Trenak egingo digun mesedea hobeto (pozago, hain zuzen) irudikatzen dugu.

Zelan, zertan eta zenbat gastatzen dugun ez dute estatistikek agintzen. Horrenbestez, kontua ez da aberatsen antzera bizitzea, aberats bagina bezala pentsatzea okerragoa da oraindik. Kaleko argipean denok berdinak garela ematen badu ere... batzuk besteak baino berdinagoak dira, gero!

**Urte Berri egunarekin batera,
zoriontasunak alde egingo du**



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

▶ Cable Spot



25 urteko
esperientzia
dugu antena
kolektiboak eta
atezain
automatikoak
instalatzen.




EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra,
zuntz-optikoa,
banda zabala, kable telebista...



ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 1723 14

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA



Abenduaren 18an
Zorionak Ander zure lehen urtebetetzean. Besarkada handi bat.



Abenduaren 4an
Zorionak Ane zure 5. urtebetetzean zure gurasoen partez. Musu handi bat printzesa! Muakkkkkk....



Abenduaren 26an
Zorionak Jon!!!! Zure 5. urtebetetzean ondo pasa eta muxu handi bat aita Oeta amaren partez.



Urtarrilaren 12an
Zorionak Iker! Musu handi bat etxekoan partez eta ondo pasa.



Abenduaren 2an
Ongi etorri Maier! Zure lengusu Beñat, Hamma, Galder eta0 Juneren partez!




Urtarrilaren 4an
5 urte!!! Zorionak Hegoi eta ondo pasa zure gurasoen partez!!

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo Elexostera ekarri (Erdikokale 2, 1.).
Hurrengo zenbakirako azken eguna:
URTARRILAREN 19A



Azaroaren eta abenduaren 22an
Zorionak bikote!! Gure Markeltxok hilabete ein dau eta tia Irunek hogeita... Patxo mordo-mordua bixontzat.



Yoga eskola

Sanatana Dharma

- * Osteopatia
- * Bertebrologia
- * Anginak sendatzeko masajea...

San Roke 24, behea
943748593 · 685722131 (Idoia)

TELEFONO INTERNACIONAL

Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKILORE

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

FOTOKOPIAK

KOLOREZKO FOTOKOPIAK

HANDIPENAK - TXIKIPENAK

PLANOAK - AZALEZTAPENAK

FAX PUBLIKOA

INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**MALLABIA
1960**

Argazki hau ezkontza batean aterata dago, 1960ko azaroaren 26an. Bertan agertzen dira: Bitoriano Gorrotxategi, Angel Arriola eta Juan Bilbao.

**ERMUA
1951**

Atze-atzean daudenetik hasita Julita Zenarruzabeitia, Manolo Balduvieco, Félix Moreno, Loren Goitandia, Juantxo Arrieta, Carmen Fernández, Amelia Moreno, Begoña Elejalde eta Mari Tere Gorosabel. Artetako iturruan, iturburuan, San Inazio egun batez.

* Zure argazki zaharrak Drogeteniturrin kaleratzea nahi baduzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1.) edo bidali posta elektronikoz drogeten@gmail.com helbidera.

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tif: 943173312

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

**Aurtengo Gabonetan 668 euro gastatuko ditugu bakoitzak:
393 euro oparietan, 179 euro janarian eta 96 euro aisialdian
(Deloitte enpresak egindako ikerketaren arabera).**

**Gabonetan gastatuko duzunaren plangintza aldeztu aurretik egiten duzu?
Zertan gastatzen duzu gehien?
Aurten iaz baino gehiago edo gutxiago gastatuko duzu?**

Bai, gastatuko dudana aurretik planifikatzen dut. Opari eta jakietan gastatzen dut gehien; aisialdian diru gehiago inbertitzea gustatuko litzaidake, baina taberna batean lan egiteak mugatzen nau. Orokorrean, krisia dela-eta, iaz baino gutxiago gastatuko dut aurten.



María Bastante, 51 urte



Bai, hilabete lehenago gastuen plangintza egiten dut eta janari kubatarrean eta oparietan gastatzen dut diru gehien. Hala ere, aurten gutxiago gastatuko dut; Karibera joateko aurreztu behar dut-eta.

Keidy Arteaga, 41 urte



Bai, aldeztu aurretik gastuak planifikatzen ditut. Opariak erosten eta aisialdian gastatzen dut diru gehien. Gabonak familia artean ospatzen ditudanez, janari erosketek ez didate gastu handirik eskatzen. Krisia dela bide, aurten iaz baino gutxiago gastatuko dudalakoan nago.

Josu Elustondo, 54 urte

Bai, aurretik planifikatzen dut eta normalean opari eta aisialdian gastatzen dut; izan ere, urtero ekitaldi bereziren bat egoten da garai honetan. Urtero-urtero gutxiago gastatzen saiatzen naiz eta, krisia dela-eta, beldurtzen gaituztela kontutan izanik, aurten iaz baino beldur handigoa emango digu gastatzeak.

Olatz Bouzo, 46 urte



Ez dut aldeztu aurretik ezer planifikatzen, momentuan suertatzen denaren arabera gastatzen dut. Oparietan zerbait gastatzen dut urtero, nahiz eta familian ez ditugun opariak egiten oro har. Ez dut gastatzen urtean zehar baino askoz ere gehiago. Halere, aurten gutxiago gastatuko dut, baina ez krisialdiaren eraginez.



Iratxe Odriozola, 24 urte



Janarian eta loterian kopuru bera gastatzen dut urtero. Oparietan, berriz, geroz eta gehiago gastatzen dut, semeak nagusitzean erregaluak garestitzen direlako. Beti ere opari erabilgarriak erosten ditut eta hori izaten da gastu nagusia, Gabonetan ez garelako Ermutik irteten. Aurten iaz beste gastatuko dut.

Ismael Arano, 51 urte

Leire Elustondo eta Nora Mateos

akerlei
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

- Laguntza-eskolak.
- Ingelesa, frantsesa eta alemana.
- Ume eta helduentzat.

Animatu zaitetz, deitu!

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA



Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

ZINEA

7tik 9ra:
14tik 16ra:
21etik 23ra:
28tik 30era:
 Zehaztu barik.
 Hainbat ordutegi.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 4€

ZINE-KLUBA

Hilak 5:
Hilak 12:
Hilak 19:
Hilak 26:
 Zehaztu barik.
 20:30ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 3€

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 8:
Hilak 15:
Hilak 22:
Hilak 29:
 Zehaztu barik.
 17:00etan.
 Ermua Antzokian.

ANTZERKIA

Hilak 20:
 'Café chino',
 Manuel Galiana eta
 Asier Hormazarekin.
 22:15ean. Antzokian.
 Sarrera: 10€



MUSIKA

Hilak 21:
 Jazz-blues kontzertua:
 Carlos Velasco.
 20:00etan.
 Lobiano Kultur Gunean.
 Sarrera: 8€

Hilak 27:
 Kontzertua:
 Miguel Poveda.
 22:15ean. Antzokian.
 Sarrera: 15€

Hilak 28:
 Kalejira:
 Ermuan kantuan.
 12:30ean. Orbe
 Kardenalaren plazatik.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 4ra arte:
 Gabonetako Haur
 Parkea: puzgarriak,
 ohe elastikoak, jumper,
 ludoteka, bideo-konsolak,
 irakurtzeko txokoa,
 tailerrak... Kiroldegian.
 11:00etatik 13:00etara
 eta 16:00etatik
 20:00etara.
 Hilaren 26an bakarrik
 arratsaldean, hilaren
 31n bakarrik goizez eta
 urtarrilaren 1ean itxita.
 Sarrera: 2€ eguneko.

Hilak 5:
 Errege Magoen
 Kabalgata. 18:00etan.
 Sallabenteko ikastetxetik.

Hilak 28:
 'Azken portua'. Dejabu
 Panpin Laborategiaren
 eskutik. 17:00etan.
 Antzokian. Sarrera: 4€



ERAKUSKETAK

Hilaren 2tik 15ra:
 Margoa:
 Juan Manuel
 Aruabarrena.

Hilaren 16tik 29ra:
 Margoa:
 Diego Moyua.
 18:00etatik
 20:00etara.
 Lobiano Kultur Gunean.

BESTELAKOAK

Hilak 29:
 Extremadurako
 txarri-boda.
 11:00etatik aurrera.
 Extremadurako zentroan.

Patxi López

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
 GEUK GIZENDUTAKO
 ABELTZANTZA
 Merkatua, 36-37 zbk.k
 Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA
J. CASADO

Lenteak
 Audifonoak
 Graduatutako Antiajuak
 Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
 Tfnoa. 17 33 57
ERMUA

MIGUEL
Harategia

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
 ☎ 17 05 63
ERMUA
 (Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK

Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Jon Unda, Boroa jatetxeko kalitate arduraduna:

“Sistema honek gure bezeroen asebetetzea hobetzen du”

Zornotzako Boroa jatetxeak duela 7 urte lortu zuen kalitate turistikoaren Q ziurtagiria. Boroako kalitate arduradun Jon Undaren arabera, sistema honekin urteko gastuak murriztu eta lanorduak hobeto aprobetxatu daitezke, besteak beste.

- Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?

Talde lanean hobetzeko metodoa delako egin genuen apustua batez ere. Sistema horrek lanak egituratzen ditu eta gure eguneko beharra erraztuko zuela pentsatu genuen, gure bezeroen asebetetzea hobetuz.

- Zein abantaila ekarri dizue Q ziurtagiria edukitzeak?

Eguneko lanak planifikatu eta horiei jarraipena egitea errazten digu. Hau da, non hobetu dezakegun jakinarazten digu. Urtean birritan, esaterako, inkestak egiten ditugu eta bezeroek gutaz espero dutena ikusten dugu bertan. Horiei esker, gure alde ahulak zeintzuk diren jakiteko aukera dugu eta hobetzeko planak martxan jartzen ditugu. Urtero gure sistema aztertu eta datorren urtekoa bideratzen dugu.

- Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue?

Q ziurtagiria daukagunetik Boroa jatetxean lan egiten dugunok argi daukagu zeintzuk diren bakoitzaren zereginak eta euren jarraipena nola egin ere. Formazio egokiarekin urteko

gastuak murriztu eta lanorduak hobeto aprobetxatu daitezkeela konturatu gara. Azpiegiturei dagokienez, hainbat aldaketa egin ditugu azken urteotan. Izan ere, atzera begiratzean, gure lehenengo azpiegiturekin ez genituela gauzak behar den moduan egiten ikusi dugu.

- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Denak. Hartzen ditugun erabaki guztiek bezeroaren eta langileen asebetetzea hobetzea dute helburu.

- Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenarako anima daitezzen?

Enpresa kudeatzeko laguntza handia dela. Gainera, eguneroko hobetzen joateko helburuak jartzen dizkizu eta hori ezinbestekoa da gaur egun enpresa bat aurrera eramateko.

- Beste enpresari batzuei kalitate sistema ziurtagiriarekin lan egitea gomendatuko zenieke?

Bai. Enpresa guztiek kudeaketa sistema behar dute eta 'Q kalitatea' oso balagarria da.



- Kalitate Turistikoaren Q-aren prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?

Bezeroentzako oso garrantzitsua da jatetxeak 'Q kalitatea' izatea, segurtasun handia ematen die: badakite janaria eta zerbitzua maila onekoa izango direla.

- Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean, zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsu edo erabilgarri gisa?

Ezin dugu bat edo bi bakarrik aipatu: atzera begira

gauza mordera hobetu dugula ikusten dugu eta aldaketa horiek guztiak batera hartzen dute benetako indarra eta gaur egun gauden lekura ekarri gaituztela erakusten digute.

- Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?

Gaur egun EFQM ereduan gaude eta datorren urtean bikaintasunaren konpromisoa lortzea espero dugu. Gainera, urtetik urtera hobetzen joan nahi dugu. Egungo krisitik irteteko modu bakarra delako bezeroek esperientzia berezia izatea gure jatetxean.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

- Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioen “profesionalizazioa” eta jomuga-konfiantzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude.
- Kalitate Turistikoaren Q-a programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 273 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.
- EFQM Bikaintasun eredua: erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredua honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

BASQUETOUR

TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO

Herri-baltza

EUSKO JAURLARITZA



Sociedad Pública del

GOBIERNO VASCO

EUSKALIT

Bikaintasunerako Euskal Fundazioa
Fundación Vasca para la Excelencia



CALIDAD TURISTICA

**Jarri Kalitate Turistikoaren
Q ziurtagiria
zure establezimenduan!**

94 607 75 86

94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

Gabonetako erosketa gida

optika
ITZE

Probaleku 7
Ermua
943 17 46 51

IZAGIRRE

Calvin Klein
Punto Blanco
DIM
Playtex
Wonderbra
Freya...

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**

Poltsak, karterak, gerrikoak,
manikurak, maletak,
osagarriak eta opariak.

SAGARDUI
poltsak

943 170305
sagardui@sagardui.com

Zubiaurre 29
48260 Ermua (Bizkaia)

Describe-te

- Teak eta kafeak.
- Belgiako txokolatea.
- Eguneko tea dastagarri
- Osagarriak: teontziak, katiluak, infusoreak.....

Oparitzeko neurria egindako poltsak!

Probaleku 4 bis, 943 03 15 81

YONARI
bisuteria eta osagarriak

Zorionak eta urte berri on gure bezero guttiei!!

Erdikokale 3, behea

AUTOSERVICIO DE CALZADO **PABLO** OINETAKO AUTOZERBITZUA

Sexto Centenario 19, ERMUA
943 17 54 09

Quetzal

Arropa, bitxiak, opariak...
zer ez!

Goienkale 9 · ERMUA **943170065**

Marfil ILEPAINDEGI BAT BAINO GEHIAGO

Osasuna · Edertasuna · Estetika

Goienkale 12 behea - ERMUA · 943 17 28 09

DOAN
OINETAKOAK

VI Centenario 17
943 17 13 44

Ferreteria **ANBOTO** Burdindegia

Zorionak eta urte berri on!

Zubiaurre 25
943 17 69 76

etxedreams
COLCHONERIAS

Gabonetan, koltxoia erosi eta otzara jasoko duzu opari!

Zubiaurre 32 (Ermua) - 943 177 041